




AKATSAK
UZENIZEN

*kontuan
izan!!*

1.361 '36

54

Euskara Zerbitzua
Glotodidaktika-lanak


karatogoia
Eibarko Hezkuntza Esparrua
943.20.27.48
20600 EIBAR

KONTUAN IZAN!!

Akatsak zuzentzen



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2000

IZAGIRRE, Pako

Kontuan izan!! : akatsak zuzentzen / [egilea, Pako Eizagirre]. – 1 argit. –
Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2000
or. ; cm. – (Glotodidaktika-lanak ; 54)

ISBN 84-457-1513-5

1. Euskara – Gramatika – Ariketak. I. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Saila. II. Izenburua. III. Bilduma
809.169-5(076.5)

Argitaraldia: 1.a, 2000ko urtarrilla

Ale-kopurua: 3.000 ale

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saila

Egilea: Pako Eizagirre

Fotokonposizioa: Composiciones RALI, S.A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 BILBAO

Inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.
Carretera Lutxana-Asua, 24-A
Erandio-Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84-457-1513-5

Lege-gordailua: BI-200-00



AURKIBIDEA

Orria

Hitzaurrea	7
1. Hau ere kontuan izan	9
2. Akatsak zuzentzeko baliabideak eta estrategiak	11
3. Akatsak eta irtenbideak	17



HITZAURREA

Urteetan zehar IRALE programan diharduten euskara-irakasleek hainbat material prestatu dituzte beren klase-emankizunetan erabiltzeko. Irakas-material horiek barne-erabilerarako sortuak dira eta gehienak esparru horretan gelditu dira. Material egokiak izan arren, badituzte argitaratuak izateko eragozpenak: askotan ez dira erabat orijinalak (bestelako argitalpenetatik hartutako testuak, argazkiak edo marrazkiak dituzte tartean) edota ez daude oraindik behar bezain landuak, argitaratzeak aukeratzea, txukuntzea, orraztea eskatzen baitu.

Halere, zenbait material argitaratu da jadanik: esaterako bertako irakaspidean jarraitzen diren curriculumak (HE1erako eta HE2rako curriculumak) edota hain harrera ona izan duen *Gramatika-gaitasuna lantzen*.

Oraingoan Gasteizko irakastegiari etorri zaio txanda. Bertako irakasle den Pako Eizagirrek prestatuak ditu hainbat irakas-material, argitaratzeko egoki izan daitezkeenak. Hasteko *Kontuan izan!!* izeneko liburuxka hau aukeratu dugu. Material sinplea nahi baduzue, baina erabilgarria. Ez dago berez IRALEko ikasleei zuzendua, haiei eskainia bazik. Eskolari begira pentsatua da bereziki eta, hortaz, tresna bat da irakaslearen eskuetan.

Irakasleek, eskolek... eskatu izan dute *Kontuan izan!!* hau eta fotokopietan banatu izan da orain artean. Jendeak erakutsi duen interesari hobeto erantzuteko prestatu dugu inprimategiko bertsioa. Gure hizkeran eta gazteago direnen hizketa-moldean ere zer hobetua badagoela konturatzeko, eta alor hori zaintzeko balio badu ez da alferrekoa izango.

Nekane Agirre

Hezkuntza Berriztatze zuzendaria



1.

HAU ERE KONTUAN IZAN!!

- Lantxo honen asmo nagusia hauxe da: euskara erabiltzen dugunon artean, eta bereziki haur-gaztetxoan artean, indarra hartzen ari diren hainbat akatsen inguruan arreta jartzea eta euskararen zuzentasuna zaintzerakoan KONTUAN IZATEA.
- Beraz, eta bereziki, ikastetxeetan egin daitekeen lanari begira prestatua dago akatsen zerrendatxo hau.
- Hemen agertzen diren akats guztiek ez dute ez larritasun ez maiztasun berbera. Gauzak horrela, irakasleen esku egongo da akats bakoitzari eman beharko zaion lehentasuna eta tratamendua erabakitzea.
- Akats bakoitzari kontrajartzen zaion irtenbidea eskaintzerakoan, asmoa ez da izan aukera zuzen eta egoki guztiak eskaintzea. Eta zenbaitetan, agian, aukera egokiena ez da agertuko. Lantxo honen zeregin nagusia, oraingoz behintzat, ez da hori, baizik eta akatsaz ohartaraztea eta irtenbiderako aukera bat edo beste ematea. Hortik aurrerakoa irakasleen esku geratzen da.
- Hainbat akats, agian larriagoak eta maiztasun handiagoak, ez dira hemen bildu. Beraz, dudarik gabe, lantxo hau behin-behinean



nekoa da, aurrerantzean osatu, zuzendu eta egokitu egin behar-ko dena. Eta honetan, denok izango dugu zer esana, zer egina eta elkarri zer eskainia.

- Beste kontua da akats hauek eta hauen antzekoak nola konpondu. Era guztietako baliabideak eta estrategia ezberdinak erabili beharko ditugu, jakina. Baina, beti ere ondorengoa kontuan izanik: *pazientzia handia beharko dugula, saio laburrak izan beharko dutela, edozein une eta gune izan litekeela egokia eta ikasleentzat zerbait atsegina izaten saiatu beharko dugula. Beraz,...gogoia, pazientzia, irudimena eta...abildadea libre!!*





2.

**AKATSAK ZUZENTZEKO BALIABIDEAK
ETA ESTRATEGIAK DIRELA ETA...**

- Gogoan izan edozein une eta gune izan litekeela aproposa akatsak zuzentzeko eta ikasleen adinera eta hauek duten euskara mailara egokitu beharko dugula gure ahalegina.
- Zuzenketa-kutsu gehiegi eman gabe, jolas giroan, eta ikasleak egingadako akatsari unean uneko aukera zuzena eskainiz aritzea komeni da askotan. Honela edo...

***Ikasleak:** Komunara joan nahi dut.*

***Irakasleak:** Ah! Komunera joan nahi duzula? Joan zaitetz, bada!!*

.....

***Ikasleak:** Bi bat irabazi dugu!*

***Irakasleak:** Ah, bai? Bi ETA bat irabazi duzue? Zorionak!!*

.....

***Ikasleak:** Da tipo bat oso jatorra dela.*

***Irakasleak:** Ah, oso tipo jatorra da, ezta?*



- Beste askoren artean, honako baliabide hauek ere erabil daitezke akatsen zuzenketan. Hona hemen aukera batzuk, adibide gisa:

⇒ **Txartelak edo horma-irudiak:** (adibide gisa, lantxo honetan badiuzu batzuk)

- Txartelok gune edo leku ezberdinetara egokituak izan daitezke. Esate baterako:

- Sarreretan

- ✓ Ez molestatu, lanean ari gara eta!!
- ✓ Aiba, ordua da eta!!
- ✓ Sartuko al gara barrura?
- ✓ Irtengo al gara jolaslekura?
- ✓ Goazen barrura, hemen hotz egiten du eta!!!!

- Pasilloetan / eskaileretan

- ✓ Zaindu ikastetxea, denona da eta! Merezi du!!
- ✓ Ez daukat klasera joateko gogorik baina...
- ✓ Kontuz, bestela erori egingo zara eta!!
- ✓ Otartekoa nahi dudan? Bai horixe!! Jakina!!
- ✓ Nork nahi du txiklea?

- Komunean

- ✓ Ez utzi ezer lurrean!
- ✓ Utzi garbi komuna, merezi du eta!!
- ✓ Ez bota ezer komunean!!
- ✓ Paperik ez badago, eskatu!!
- ✓ Paper hau komunerako da!

- Kiroldagietan

- ✓ Egingo al dugu futbolean?
- ✓ Egingo al dugu soka-saltoan?



- ✓ *Bi ETA bat irabazi dugu!!*
- ✓ *Onenak gara!! / Mundialak gara!*
- ✓ *Baietz irabazi!!*

- Telefono ondoan

- ✓ *Ama hor al dago? / Esaiozu jartzeko!!*
- ✓ *Mikel etxean al dago?*
- ✓ *Ea zenbakia gogoratzen dudan!*
- ✓ *Neu aurrena!! Neu lehenengo!!*

- Ikasgelan

- ✓ *Ba al duzu ezabagomarik?*
- ✓ *Ba al dakizu galdera hau?*
- ✓ *Aizu, hau ondo eginda al dago?*
- ✓ *Ondo esanda al dago?*
- ✓ *Aizu, komunera joateko gogoa dut!!*

- Beste hainbat leku eta egoeratan

- ✓ *Ordua da; beraz, banoa!*
- ✓ *Berandu etorri naiz, lo hartu dut eta!*
- ✓ *Tori, zurea da eta!*
- ✓ *Nola jakin dudan? Lagunari galdetuta! Irakasleari galdetuz!*
- ✓ *Nire gurasoak ez daude etxean.*
- ✓ *Nahi al duzu txikle hau txupatxusaren truke?*
- ✓ *Begira ea badabilen! Ea funtzionatzen duen!!*
- ✓ *Ea asmatzen duzun!!*

- Era berean, txartelak edo horma-irudiak une eta egoera ezberdinetara egokituak izan daitezke:

- Ospakizunak
- Festak
- Irtenaldiak



⇒ **Antzerkitxoak**

- Buruz ikasi eta antzeztuak
- Irakurriz antzeztuak

⇒ **Txisteak**

- Buruz kontatzekoak
- Irakurtzekoak

⇒ **Esamoldeak eta esaera zaharrak**

⇒ **Kantak**

⇒ **Jolasak eta jokoak**

⇒ **Bestelako hainbat ariketa**

- Aukera anitzeko galderak:

Aukeratu esaldi zuzena.

- A. *Goaz kalera?*
- B. *Joaten gara kalera?*
- C. *Joango al gara kalera?*

.....

- A. *Ni ere noa.*
- B. *Ni ere banoa.*
- C. *Ni noa ere bai.*

- Esaldi baten itzulpena asmatu:

Nola esango zenuke...?

- *Cuidado, que te vas a caer!*
- *A que acierto!*
- *Lo he comprado por mil pesetas.*



-
 - *¿Hay Coca Cola?*
 - *¿Está mi mamá?*
 - *Hemos empatado a tres.*

- **Esaldiak osatu**
 - *Atzo sendagile-..... joan nintzen.*
 - *Ez dakit noiz bukatuko*
 - *Ez dut lanerako*
 - *Mila pez.....erosi nuen liburua.*
 - *Egingo al dugu saski.....?*
 - *Kontuz ibili, zuloa.....!!*

- **Zuzena ala okerra al da esaldia?**
 - *Nahi duzu txokolate?*
 - *Ni zu bezalakoa naiz.*
 - *Irakasle hori oso histerika da.*

-
 - *Ez jan, txarra dagoela!!*
 - *Badakit txarra dagoela!!*
 - *Badakit txiste bat oso txarra dela!!*





3.

AKATSAK ETA IRTENBIDEAK



OKER**ZUZEN**

1. Non dagoen galdetzerakoan

Dago Eneko?

Eneko hor al da?

Daude zure aitak?

Eneko etxean al dago?

Badago zure aita?

Zure gurasoak etxean al daude?

Badago hemen nire tutorea?

Zure aita hor al dago?**Nire tutorea hemen al dago?**

2. Baietza ala ezetza galdetzerakoan

Dago esnea?

Ba al dago esnerik?

Duzu dirua? Zuk, duzu dirua?

Ba al duzu dirurik?

Daukazu baloia?

Ba al daukazu baloirik?

Dakizu abesti hau?

Ba al dakizu abesti hau?

Zaude urduri?

Urduri al zaude?

3. Non, nola, norekin... dagoen edo dabilen adierazterakoan

Dago ondo esanda?

Ondo esanda al dago?

Dago guay!

Oso ondo / ona dago!**Primeran dago**

Dago hortik.

Hor dabil /Hor nonbait dabil.

Dabil zurekin?

Zurekin al dabil?

Zaude nekatuta ala?

Nekatuta zaude, ala?





4. Ustea edo adierazterakoan

Dirudi haserre dagoela.

Dirudi tontoa zarela!

Dirudi jeta bat.

Dirudi baietz!

Dirudi gezurra, aizu!

Badirudi haserre dagoela.

Tontoa ematen duzu!

Larru sendoa duela dirudi.

Baietz ematen du! / Hala ematen du.

Gezurra dirudi, aizu!

5. Nor, zer, nolakoak garen adierazterakoan

Naiz Eneko. Dago Marian?

Gara onenak! Gaude pozik!

Gara la letxe!

Zara gure laguna?

Zara Edurneren neba?

Eneko naiz. Marian hor al dago?

Onenak gara! Pozik gaude!

Mundialak gara! Ezin hobeak gara!

Gure laguna al zara?

Edurneren neba al zara?

6. Proposamenak adierazterakoan

Joaten gara kalera?

Goaz kontzertura?

Goaz hemendik!

Jolasten dugu futbolera?

Egiten dugu pirola?

Joango al gara kalera?

Joango al gara kontzertura?

Goazen hemendik!!

Jokatuko al dugu futbolean?

Egingo al dugu piper?



7. Nork-nor kasuak adierazterakoan

Unairi ikusi diot.
Mireni agurtu diogu.
Aitak kotxean eraman dit.
Irakasleak ez dit ikusi.
Elkarri ikusi diogu.

Unai ikusi dut.
Miren agurtu dugu.
Aitak kotxean eraman nau.
Irakasleak ez nau ikusi.
Elkar ikusi dugu.

8. Nork kasua markatzerakoan

Rafael esan dit.
Eneko eraman du baloia.
Hori ez du balio.
Ni uste dut hala dela.

Rafaelek esan dit.
Enekok eraman du baloia.
Horrek ez du balio
Nik uste dut hala dela.



9. Non, nora, nondik...adierazterakoan

Komunan sartu da.
 Arbelan marraztu ezazu.
 Lurren etzan gaitezke?
 Komunatik nator, aizu!
 Irailan edo maiatzan izango da.

Komunean sartu da.
Arbelean marraztu ezazu.
Lurrean etzan gaitezke?
Komunetik nator, aizu!
Irilean edo maiatzean izango da.



10. Noren etxera, norengana goazen adierazterakoan

Medikura noa orain.
 Dentistara joan zaitez.
 Psikiatran egon zen.
 Zoaz otorrinora!
 Psikologora joaten da.

Medikuarenera noa orain.
Dentistarenera joan zaitez.
Psikiatrarenean egon zen.
Zoaz otorrinoarengana!
Psikologoarengana joaten da.



11. Trukea, erosketa edo adierazterakoan

Mila pezetagatik erosi dut.
Bi kromogatik aldatu dut.
Otartekoagatik eman diot.
Zer dago hogei durogatik?
Txupatxusagatik emango dizut.

Mila pezetan erosi dut.
Bi kromoren truke aldatu dut.
Otartekoaren truke eman diot.
Zer dago hogei durotan?
Txupatxusaren truke emango dizut.





12. Lekua eta denbora adierazterakoan

Urtearen zehar piper ugari egin du.
 Aste honen zehar zer egingo duzu?
 Egunaren zehar aspertu egiten naiz.
 Mendiaren zehar joan ginen.
 Historiaren zehar garbi ikusten da.

Urtean zehar piper ugari egin du.
Aste honetan zehar zer egingo duzu?
Egunean zehar aspertu egiten naiz.
Mendian zehar joan ginen.
Historian zehar garbi ikusten da.

13. Norbaiten, zerbaiten papera egiten dela adierazterakoan

Beti tontoa egiten zabilta!
 Zergatik egiten duzu indioa?
 Beti jilipollas egiten ari da.
 Orain ere zoroa egiten ari da.
 Nik aita egingo dut eta zuk ama.

Beti tontoarena egiten zabilta.
Zergatik egiten duzu indioarena?
Beti leloarena egiten ari da.
Orain ere zoroarena egiten ari da.
Nik aitarena egingo dut eta zuk amarena.

14. Nola dagoen adierazterakoan

Zoroa zaude, ala?
 Leloa zaude, ala zer?
 Urdurik zaudete ala?
 Tristeak zaudete, ezta?

Zoratuta/zoratua zaude, ala?
Lelotuta/lelotua zaude, ala zer?
Urduri zaudete, ala?
Triste/goibel zaudete, ezta?



15. Nola dagoen adierazterakoan

Nekatutak gaude gaur.
Harritutak gaude zurekin!
Aspertutak zaudete beti.
Zoratutak zaudete ala?
Mindutak daude nirekin.

Nekatuta gaude gaur / Nekatuak gaude.
Harrituta gaude zurekin! / Harrituak...
Beti aspertuta zaudete. / Aspertuak...
Zoratuta zaudete ala? / Zoratuak...
Minduta daude nirekin. / Minduak...



16. Zehar galderak osatzerakoan

Ez dakit noiz etorri da.
Ez dakit etorriko bada.
Ez dakit irakurriko baduen.
Ez dakigu zer nahi du.
Ea nola egin duzu.

Ez dakit noiz etorri den.
Ez dakit etorriko den ala ez.
Ez dakit irakurriko duen (ala ez).
Ez dakigu zer nahi duen.
Ea nola egin duzun.



17. Desafioak, apustuak adierazterakoan

A que bai!

A que bai asmatu!

A que bai asmatzen dudala!

Asmatzen dudala!

Ez nauzula harrapatzen!

A que ez da egia!

Baietz!

Baietz asmatu!

Baietz asmatu nik!

Baietz asmatu!

Ezetz harrapatu!

Ez da egia, ezta? Ez dela egia!

18. Aitzakiak, justifikazioak adierazterakoan

Nola irakaslea ez dago, banoa.

Nola ez dakit ez dut kontatuko.

Irakaslea ez dagoenez, banoa.

Banoa, irakaslea ez dago eta.

Nola irakaslea ez dagoen, banoa.

Ez dakidanez, ez dut kontatuko.

Ez dut kontatuko, ez dakit eta.

Nola...





19. Aitzakiak, justifikazioak adierazterakoan

Ya que ez datorren, goazen!

Ya que hemen gaude, egingo dugu.

Ya que ez duzu nahi, eman niri!

Ya que ez dakit, ez naiz aurkeztuko.

Ya que dakizun, esan!

Ez dator, beraz goazen!

Hemen gaudenez gero, egingo dugu.

Ez duzu nahi, beraz, emadazu niri!

Ez naiz aurkeztuko, ez dakit eta!

Esan, badakizu eta!

20. Ondorioa adierazterakoan

Así que alferrik zabilta!

Ez dakizu, así que isildu!!

Ez dator, así que goaz!

Ordua da, así que, ni banoa

Ilun dago, así que kontuz ibili!

Beraz, alferrik zabilta!

Ez dakizu, beraz, isildu zaitez!

Ez dator, hortaz, goazen!!

Ordua da. Beraz, banoa.

Ilun dago. Beraz, kontuz ibili!!

21. Aginduaren edo aholkuaren arrazoia adierazterakoan

Kontuz! Eroriko zarela!

Ez ukitu, erreko zarela!

Goazen, klasea bukatu dela!

Ez jan, txarra dagoela!

Goazen, berandu dela!

Kontuz! Erori egingo zara eta!

Ez ukitu! Erre egingo zara eta!

Goazen, klasea bukatu da eta!

Ez jan, txarra dago eta!

Goazen, berandu da eta!



22. Harriduraren arrazoia adierazterakoan

Aiba! Bukatu dela!

Egia da! Klasea bukatu dela!

Ai ene!! Ordua dela!

Aiba, gainditu dudala!

Baina, baina... negarrez dagoela!!

Hara! Bukatu da eta!

Egia da! Klasea bukatu da eta!

Ai ene! Ordua da eta!

Aiba, gainditu dut eta!

Baina, baina... negarrez dago eta!!

23. Arrazoiak adierazterakoan

Berandu nator zergatik lo hartu dut.

Ez, zeren eta irakasleak ez du nahi!

Zergatik? – Zergatik ez!

Zergatik? – Zergatik bai!

Tori, zergatik zurea da!

Berandu etorri naiz, lo hartu dut eta!

Ez, irakasleak ez du nahi eta!

Zergatik? – Hargatik ez!

Ez dudalako nahi!

Zergatik? – Hargatik! / Nahi dudalako!

Tori, zurea da eta!

24. Aurrez esandakoari zerbait gehitzerakoan

Ere bai erosi dut komiki bat.

Nik ere bai erosi dut.

Ni ere noa.

Nik ere bai dakit.

Nik irakurri dut ere.

Komiki bat ere erosi dut.

Nik ere erosi dut.

Ni ere banoa.

Nik ere badakit.

Nik ere irakurri dut.



25. Modua adierazterakoan

Nola enteratu? Ba, telefonoz deitzen!

Nola konpondu arazoa? Hitz egiten!

Nola lortu dudan? Ba, ikasten!

Nola zuzendu? Ba, hiztegia begiratzten!

Nola azaldu? Mapa erabiltzen!


Nola enteratu? Telefonoz deituz.

Nola konpondu arazoa? Hitz eginez!

Nola lortu dudan? Ba, ikasita!

Nola zuzendu? Ba, hiztegia begiratuta!

Nola azaldu? Mapa erabilia!





26. Erlatibozko esaldiak osatzerakoan

Badakit txiste bat oso polita dela.	Badakit txiste bat oso polita (dena).
Badut lagun bat oso ona dela.	Badakit oso polita den txiste bat.
Da neska bat asko balio duela.	Badut lagun bat, benetan oso ona.
	Badut lagun oso ona.
	Asko balio duen neska da.



27. Baiezkoak eta ezezkoak galdetzerakoan

Zenbat urte dituzun dakit.	Badakit zenbat urte dituzun.
Nola egiten den dakizu?	Badakizu nola egiten den?
Zertarako den dakizue?	Badakizue zertarako den?
Dakit zer gertatzen zaizun.	Badakit zer gertatzen zaizun.
Dago Coca Cola?	Badago Coca Colarik?



28. Aditza eta objektuaren arteko komunztadura adierazterakoan

Badago gauza batzuk oso onak.
Badakit kontu batzuk interesgarriak.
Oso lagun onak daukat.
Baduzu apunteak?

Badakizkizu zer diren horiek?

Badaude gauza batzuk oso onak.
Badakizkit kontu interesgarri batzuk.
Oso lagun onak dauzkat.
Baduzu apunterik?


Badituzu apunteak?

Badakizu zer diren horiek?

29. Familiartekoak adierazterakoan

Nire aitak ez daude etxean.
Miren eta Koldo nire anaiak dira.
Aitonak etorriko dira etxera.
Nire semeak udalekura joan dira.
Nire osabak Donostian bizi dira.

Nire gurasoak ez daude etxean.
Miren eta Koldo nire neba-arrebak dira.
Aiton-amonak etorriko dira etxera.
Nire semea eta alaba (seme-alabak)....
Nire osaba-izebak Donostian bizi dira.





30. Bera eta berdina desberdintzerakoan

Liburu berdinetik ikasiko dugu.

Herri berdinean bizi gara.

Beti gauza berdina esaten duzu!

Aurten ere irakasle berdina!!

Egun berdinean dugu urtebetetzea.

Liburu beretik ikasiko dugu.

Herri berean bizi gara.

Beti gauza bera esaten duzu!

Aurten ere irakasle bera!!

Egun berean dugu urtebetetzea.

31. Kiroletako emaitzak adierazterakoan...

Bi bat irabazi dugu.

Bat bat bukatu da partida.

Sei bost gelditu ginen.

Bi bost izan da emaitza.

Hiru hiru daude une honetan.


Bi eta bat irabazi dugu.

Bana bukatu da partida.

Sei eta bost gelditu ginen.

Bi eta bostekoa izan da emaitza.

Hiruna daude une honetan.





32. Ezezkoetan, objektua adierazterakoan

Ez dut lanerako gogoia.

Gaur ez ditut etxerako lanak.

Bihar ez dugu futbol partida.

Ez daukagu astia hori egiteko.

Ez dauzkazu jolaserako gogoak?

Ez dut lanerako gogorik.

Gaur ez dut etxerako lanik.

Bihar ez dugu futbol partidarik.

Ez daukagu astirik hori egiteko.

Ez daukazu jolaserako gogorik?

33. Maileguzko hitzak adierazterakoan

Nahi duzu kafe?

Nahi duzu croissant?

Nork nahi du txikle?

Zer da “parapente”?

Rock gustatzen zaizu?

Kaferik nahi al duzu?

Nahi al duzu croissantik / croissant bat?

Nork nahi du txiklea?

Zer da parapentea?

Gustatzen al zaizu rocka?

34. Baldintzak adierazterakoan

Komenigarria izango zen.

Hobe izango zen.

Gustura erosiko nuen.

Etorriko bazen, ze ondo!

Beharrezkoa izango zen.


Komenigarria litzateke.

Hobe izango litzateke.

Gustura erosiko nuke.

Etorriko balitz, ze ondo!

Beharrezkoa (izango) litzateke.



35. Hitz ordena egokia

Da nire laguna, aizu!
 Da tipo bat oso jatorra.
 Da neska bat asko dakiela.
 Da oso ona saskibaloian.
 Dauka oso suerte txarra.

Nire laguna da, aizu!!
Oso tipo jatorra da.
Asko dakien neska da.
Oso ona da saskibaloian.
Oso suerte txarra dauka.

36. “Merezi” aditza erabiltzerakoan

Pena merezi du.
 Ez du pena merezi.
 Ez zuen pena merezi haserretzea.
 Pena merezi zuen eta joan egin ginen.
 Goazen, pena merezi du eta!

Merezi du.
Ez du merezi.
Ez zuen merezi haserretzea.
Merezi zuen eta joan egin ginen.
Goazen, merezi du eta!



37. Esaldiari enfasia edo indarra ematerakoan

Zein ona da!

Ze morro daukazu!

Ze gorputza dauka!

Zein ondo dakizu abestia!!

Nola marrazten duzu!!

Zein ona den!

A ze nolako muturra daukazun!

Hori da, hori, gorputza daukana!

Zein ondo dakizun abestia.

Nola marrazten duzun!

38. Izenordeak ezezkoan

Zer esan duzu? –Ezer!

Zertarako hartu duzu? –Ezertarako!

Norekin etorri zara? –Inorekin!

Ez dut ulertu ezer ere ez.

Ez dut nahi ezer ez!

Zer esan duzu? –Ezer ez!

Zertarako hartu duzu? –Ezertarako ez.

Norekin etorri zara? – Inorekin ez!

Ez dut ulertu ezer ere.

Ezer (ere) ez dut nahi!

39. Gogoak, nahiak biziki adierazterakoan

Ojala suertea duen!

Aber gainditzen badut!

Ea ikusten baduzu!

Ea asmatzen badudan!

Aber irabazten badu!

Izango ahal du suertea!

Ea gainditzen dudan!

Ea ikusten duzun!

Ea asmatzen dudan!

Irabaziko ahal du! / Irabaz dezala!



40. Gogoia adierazterakoan

Bokata jateko gogoak dauzkat!
 Bukatzeko gogoak ditugu.
 Pixa egiteko gogoak dauzkazu?
 Ez dauzkat jateko gogoak.
 Baskonia ikusteko gogoak ditut.

Bokata jateko gogoia daukat!
Bukatzeko gogoia dugu.
Pixagalea al daukazu?
Ez daukat jateko gogorik.
Baskonia ikusteko gogoia dut.

41. Nolakoak garen konparatzerakoan

Ni zu bezala naiz.
 Zu aita bezala zara.
 Zure erlojua nirea bezala da.
 Zuek astoa bezala zarete.
 Untxia erbia bezala da.

Ni zu bezalakoa naiz.
Zu aita bezalakoa zara.
Zure erlojua nirea bezalakoa da.
Zuek astoa bezalakoak zarete.
Untxia erbia bezalakoa da.

42. Baietza edo ezetza indarrez adierazterakoan

Ni? Bai joango naizela!
 Egin? Klaro que egin dudala!
 Joan? Klaro que joango naiz!
 Nahi dudan? Klaro que bai!
 Kopiatu? Klaro que ez!

Ni? Joango naiz! Jakina!
Egin? Bai horixe!! Egin dut!
Joan? Jakina joango naizela!
Nahi dudan? Bai horixe / Jakina!
Kopiatu? Ez horixe!



43. Atributoak eta izen lagunak adierazterakoan

Irakasle hori oso histerika da.
Pelikula erotikak saltzen dituzte hor.
Emakume hori histerika jartzen da.
Nire laguna oso neska metodika da.
Oso gauza logika da.

Irakasle hori oso histerikoa da.
Pelikula erotikoak saltzen dituzte hor.
Emakume hori histeriko jartzen da.
Nire laguna oso neska metodikoa da.
Oso gauza logikoa da.

44. Jolasak adierazterakoan

Jolastuko al dugu saski-baloira?
Jolastuko al dugu soka-saltora?
Gero kaniketara jolastuko dugu.
Musera jolastuko bagenu?
Nork nahi du pilotara?

Egingo al dugu saski-baloian?
Egingo al dugu soka-saltoan?
Gero kaniketan egingo dugu.
Egingo bagenu musean?
Nork nahi du pilotan egin?





45. Bestelakoak

Lehenengoa eskatzen naiz!
Primeran pasatu ginen han.
Begira ea funtzionatzen den.
Hau noizko? Biharrerako?
Min egin naiz belarrian.
Zuk pilo dakizu.
Hori nigatik idatzia da.
Paper hau komunarentzat da.
Zeinek etorri dira?
Ero bezala dabil aspaldian.
Mikelek jo dit.

Neu lehenengo! Neu aurrena!
Primeran pasatu genuen han.
Begira ea funtzionatzen duen.
Hau noizko? Biharko?
Min egin dut belarrian. Min hartu dut...
Zuk pilo bat dakizu (pila bat / piloa)
Hori nik idatzia da.
Paper hau komunerako da.
Zein etorri dira?
Eroa (balitz) bezala dabil aspaldian.
Mikelek jo egin nau.

Gehitu zuk bildu dituzunak...



EUSKARA ZERBITZUKO ZENBAIT ARGITALPEN
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

99/05/27

GLOTODIDAKTIKA LANAK

Ebaluazioak eta hizkuntz testak

- 25 Galbahe-E2 Hizkuntz Testa. (I.Olaziregi, J. Sierra)
- 26 Galbahe-E1 Hizkuntz Testa. (I.Olaziregi, J. Sierra)
- 30 PIR-5 Hizkuntz Testa. (I. Olaziregi, J. Sierra)
- 36 EIFE-3 Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina. (J. Sierra, I. Olaziregi)
- 37 Euskara Probak. Irakurmena eta idazmena OHoko 8. mailarako. (J. Sierra, I. Olaziregi)
- 38 HINE. Hizkuntza idatziaren neurketa eskolan. (J. Sierra, I. Olaziregi)

Gaitasun-agiriak

- 51 Irakasleen Hizkuntz Eskakizunak. 1998ko azterketak.
- 52 EGA. 1997 eta 1998ko azterketak. (N. Gardner)

Hizkuntzen irakaskuntza

- 15 Hizkuntz Jolasak. (M. Sainz, I. Olaziregi)
- 19 Euskalkiz Euskalki. (R.M. Pagola)
- 23 Trebatzen. OHoko Goiko Ziklorako Hizkuntz Ariketak. (M. Sainz)
- 34 Oinarrizko Hitzak. Euskarazko hitz erabilgarrienak. (I. Olaziregi.)
- 45 Irakasleen Euskalduntzea. HE1erako curriculum: 1000, 2000 eta 3000 atalak.
- 48 Euskara DBHn. Metodologiazko orientabideak (J.J. Agirrezabala etab.)
- 49 Irakasleen Euskalduntzea. HE2rako curriculum: 4000 eta 5000 atalak.
- 53 Gramatika Gaitasuna Lantzen (A. Zubizarreta, M. Dorronsoro, J.M. Azurmendi)
- 54 Kontuan izan. Akatsak zuzentzen. (P. Eizagirre Irure)

HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA

Hizkuntz Prestakuntza

- 1 Bizkaieraren idatzizko arauak. Deklinabidea eta Aditza. (A. Arejita-J.M.Irazola-J.Uriarte)
- 2 Euskal Aditza: Bizkaiera eta Batua. (J.M. Irazola)
- 4 Bizkaierazko Joskera. (A. Arejita, J.M. Etxebarria, J.M. Irazola, J. Uriarte.)
- 5 Hezkuntza Administrazioako Hiztegia. (I. Olaziregi, J.M. Berasategi, M. Zalbide.)

ZABALKUNDE LANAK

EIMA (Euskal Ikasmaterialgintza)

- 38 EIMA. Idatzizko ikasmaterialen bilduma 1994. (J. Aizpurua, B. Basterretxea, I. Olabarria, M. Zalbide)
- 43 EIMA. Ikus-entzunezko Ikasmaterialen Bilduma 1996-97. (P. Mendizabal, I. Olabarria, M. Zalbide)
- 46 EIMA. Hezkuntza-softwarearen bilduma 1998. (P. Mendizabal, I. Olabarria, M. Zalbide)



Irakaskuntza datuak

24 Euskal Irakaskuntza: 10 urte. (M. Zalbide etab.)

IRALE (Irakaslegoaren Alfabetatze Euskalduntzea)

z/g IRALE. Aurkezpen-txostena 1999-2000.

NOLEGA (Normalizazio Legearen Garapena)

18 Eskola Antzerkia 1. (Askoren artean)

28 Eskola hiztun bila. (B. Basterretxea etab.)

30 Eskola Antzerkia 2. (Askoren artean)

31 Eskola Antzerkia 3. (Askoren artean)

34 Euskal Girotze Barnetegiak. (Askoren artean.)

37 Ikastetxeen Errotulazioa. (C. Lobo, I. Artola, J.M. Berasategi)

40 Eskola Antzerkia 4. (I. Artola, J.M. Berasategi)

42 Eskola Antzerkia 5. (I. Artola, J.M. Berasategi)

44 Kontrapas. 1950 aurreko kantuen eskola-katalogoa. (Eresbil, Nolega)

45 Eskola Antzerkia 6. (I. Artola, J.M. Berasategi)

47 Eskola Antzerkia 7. (I. Artola, J.M. Berasategi, S. Izagirre)

48 Euskal Girotze Barnetegiak: 85-99. (Askoren artean.)

z/g Barriola Deklamazio-saria 1999 (kasetea)

z/g NOLEGA. Aurkezpen-txostena 1999-2000.

z/g Sagastiberri. Urruzuno literatur lehiaketa 1999.



Kontuan izan!!

EK15020286

ISBN: 84-457-1513-5



9 788445 715130

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Salneurria: 200 PTS.